

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 122/2015 Erabakia, martxoaren 10ekoa, behin betiko onarpena ematen diona "Kudeaketa zuzentarau eta neurriak" dokumentuari, Arabako Lurralde Historikoko ibaietan kontserbazio bereziko bost eremu (KBE) onik zaintzeko eta bertako espezieen habitaten nariadura eta eraldaketak ekiditeko

Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 17ko 314/2014 Erabakiaren bidez, hasierako onarpena eman zitzaien "Kudeaketa zuzentarau eta neurriak" Arabako Lurralde Historikoko ibaietan Batasunaren garrantziko bost leku (BGL) onik zaintzeko eta bertako espezieen habitaten nariadura eta eraldaketak ekiditeko:

- ES2110006 Baia ibaia/río Baia
- ES2110010 Zadorra ibaia/río Zadorra
- ES2110012 Ihuda ibaia/río Ihuda (Ayuda)
- ES2110005 Omecillo-Tumecillo ibaia/río Omecillo-Tumecillo
- ES2110008 Ebro ibaia/río Ebro

Erabaki horretako bigarren puntuan, onartu zen Batasunaren garrantziko bost leku (BGL) horiek onik zaintzeko eta bertako espezieen habitaten nariadura eta eraldaketak ekiditeko "Kudeaketa zuzentarau eta neurriak" dokumentuari entzunaldiko eta jendaurrean jartzeko izapidea igaroaraztea, bi hilabeteko aldiaz.

Entzunaldiko eta jendaurrean jartzeko aldiak, dokumentuari buruzko oharra eta alegazioak aurkeztu dituzte honako administrazio, antolakunde eta interesdun edo eragindako hauek:

- Ur Agentzia-URA. Agencia Vasca del Agua.
- Eusko Jaurlaritzaren Natura Ingurune eta Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza.
- Leciñana de la Oca Administrazio Batzarra.
- Abornikanoko Administrazio Batzarra.
- Iruña Okako Udala.
- Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea – GADEN.

Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzuak egindako 2015eko otsailaren 18ko txosten baten bitartez, oharren eta alegazioen edukia aztertzen da eta horiei erantzuna ematea proposatzen da, ondoren azaltzen denaren arabera:

Ur Agentzia-URAREN alegazioa

Uraren Euskal Agentzia-URAK bere idazkian adierazten du, izaera orokorrean, oso positiboa deritzela KBEetako elementu garrantzitsuenen kontserbazio egoera ona lortzeko eta/edo mantentzeko hasiera batean onartutako dokumentuan proposatzen diren neurriak.

Kudeaketa neurrien finantzaketaren inguruan, URAK uste du garrantzi handienekoa dela dokumentuaren testuan, zenbatespen ekonomikoaz gainera, neurri horiek finantzatu eta gauzatzeko ardura duten eragileak ere agertzea. Horri dagokionez, kontuan har daiteke neurri horietako batzuek administrazio erakunde bat baino gehiagok batera esku hartzea behar

dutela eta zenbait neurrik ez dakartela berekin, ezinbestean, administrazioarentzako zuzeneko kosturik. Era berean, kontuan eduki behar da, Euskal Herriko Natura Zaintzeko Legearen testu bateratua onartzen duen Legegintzako Dekretuaren 22.3. artikuluan adierazten denarekin bat etorriz, kudeaketari buruzko dokumentuaren barruan balioespen ekonomiko bat sartzearen helburua hauxe dela: 92/43/EE Zuzentarauaren 8. artikuluan ezarritako EBren kofinantzaketa dela-eta beharrezkotzat jotzen denaren zenbatespen bat jasotzea, alegia. Hortaz, uste da ez dagoela “Kudeaketa zuzentarau eta neurriak” dokumentuan “finantzaketaren arduradun” bat zehazterik, oraindik ez baitago definituta esandako zuzentarauaren 8. artikuluan aipatzen den kofinantzaketa.

1. AC.5 neurriari dagokionez (“EAEko ibaien egoera biologikoa eta kimikoaren jarraipenerako sarean dauden eta KBEko ur masen egoera ekologikoari buruz informazioa ematen duten estazioak mantentzea”), URAk aditzera ematen du Ebroko Konfederazio Hidrografikoak (EKH), bere eskumen esparruan, EAEren barruan ur masak kontrolatzeko bere sareak kudeatzen dituela eta, horrengatik, iradokitzen du ibaien egoera biologikoa eta kimikoaren kontrol eta jarraipenerako puntuaren mapa osatu dadila EKHren kontrol estazioekin. Horri buruz, adieraz daiteke aipatutako erakundea dagoeneko informazio hori bidaltzen ari zaiola Arabako Foru Aldundiari, eta informazio hori, eskuragarri dagoen gainerako informazioarekin batera, kontuan hartuko dela kudeaketa zuzentarau eta neurrien eraginkortasuna balioztatzeko.

1. AC.27 neurriari dagokionez, argitasun handiagoa izan dadin, URAk proposatzen du neurri horren testua zati batean aldatzea, hasiera batean onartutako dokumentuan idatzi zen honako honen orde: “KBEren esparruan ur emarien hartzeak eta bilketak ikuskatu eta kontrolatzeko lanak areagotzea”, ondoko testu hau jarritz: “Eskumena duen administrazioari eskatuko zaio KBEren esparruan ur hartzeak eta bilketak ikuskatu eta kontrolatzeko lanak areagotu ditzala”. Onartzen da alegazioa eta, horretan oinarrituz, 1. AC.27 neurriaren testua aldatzen da aipatu den moduan.

Beste alde batetik, “Kudeaketa zuzentarau eta neurriak” dokumentuetan jasotzen den informazioa osatzeko asmoz, URAk ondoko txosten tekniko hau bidali du CD batean: “EAE ur bazterrek birlandareztatzeko jardunen lehentasunak ezartzea” (Anbiotek, SL 2011). Horri dagokionez, egokia iritzi zaio esandako dokumentua aztertzea, ibaietako KBEen kudeaketan kontuan edukitzeko, ibaietako KBEei buruz eskuragarri dagoen baliozko informazio guztia aintzat hartuz.

Eusko Jaurlaritzaren Natura Ingurune eta Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza

Natura Ingurune eta Ingurumen Plangintzako Zuzendaritzaren alegazioak planteatzen du 1. AC.29 neurria, honela dioena, deuseztatzea: “KBE egokiro kudatzeko behar diren proiektuak edo jarduketak, eragin hautemangarria izan badezakete babestutako natura eremuaren elementu nabarmenetan edo bereziki kalteberetan, eskumena duten ingurumen arloko administrazioen txosten baten gai izango dira, ingurumen aldetik egokiena den irtenbidea aukeratzen dela eta zaintzeko diren habitat eta eremuen gaineko eraginetatik babestu edo eragin horiek zuzendu eta konpentsatzeko neurri egokiak hartzen direla ziurtatzeko helburuz”.

Natura Ingurune eta Ingurumen Plangintzako Zuzendaritzak neurri hau deuseztatzeko agertzen dituen oinarrizko arrazoiak bi dira: lehenengoa da “aruketa” bat dela eta, hortaz, ez duela lekurik Foru Aldundiak onartu beharreko “Kudeaketa zuzentarau eta neurriak” dokumentuan; eta bigarrena da xedatzen dela zehaztu gabeko erakunde batek txostena jaulkitzea Natura 2000ko leku baten kudeaketarako beharrezkoak diren proiektuetarako, ingurumen eragina ebaluatzeko prozeduratik aparte.

Emandako argudioetan oinarriturik, bidezkoa iritzi zaio “Kudeaketa zuzentarau eta neurriak” dokumentuan 1. AC.29 neurria deuseztatzea, “aruketa”tzat jotzen baita. Edozein kasutan ere, uste da neurri hori Eusko Jaurlaritzak onartu beharreko zaintze arauen dokumentuan sartu beharko litzatekeela, eta hala proposatzen da. Izan ere, neurria ez dago zuzenduta ingurumen eraginaren ebaluazioaren pean izan litezkeen proiektu edo jardunetara, baizik eta, lekuaren kudeaketarekin zerikusirik izateagatik, prozedura horretatik salbuesten diren proiektu edo

jardunetara bideratzen da, nahiz eta eremuaren elementu garrantzitsuenetan eragin haute-mangarria izan lezaketen, eta haiek gauzatzeko ingurumenean eragin esanguratsuaren maila desberdina duten hainbat alternatiba aztertu litezkeen.

Ildo horretan doa, hain zuzen ere, Natura Inguruneko eta Ingurumen Plangintzako Zuzendaritzaren alegazioen txostenak berak, 1. AC.29 zehaztapenaren inguruan ondoko hau adierazten duelarik: "Esandako zehaztapenak KBE egokiro kudeatzeko behar diren proiektu edo jarduketari buruz dihardu, itxura denez mota horretako proiektuak eskumena duten ingurumen arloko administrazioek balioztatzen salbuestea galarazteko asmoz". Izan ere, horixe da neurri honen helburua eta, edozein kasutan, lekuaren kudeaketarako beharrezkoak izan daitezkeen zenbait egitasmo eta proiektuaren ingurumen ebaluazioari dagokionez, aipatu daiteke Estatuaren Abokatutzak 2013ko apirilaren 1ean emandako irizpenean adierazten dela, Natura Inguruneko eta Ingurumen Plangintzako Zuzendaritzaren alegazio txostenean bertan aipatzen dena, eta gai hau argitzen duena, ondoko ondorio honetara helduz: "...egitasmo edo proiektu bat IEAren pean izan ala ez zehazten duen kontua egitate honetan datza: zaintzeko diren elementuetan eragin esanguratsurik izan dezakeen, eta ez lekuaren kudeaketarekin duen lotura. Beraz, kontu hau kasuan-kasuan erabaki beharko da."

Leciñana de la Oca Administrazio Batzarra

Leciñana de la Oca Administrazio Batzarraren alegazioak Zadorra ibaia/río Zadorra (ES2110010) BGLren kudeaketa zuzentarau eta neurriari buruz dira.

Lehenengo alegazioaren xedea jarduketak egin behar diren eremu zehatzak azaldu daitezela da. Horri buruz, esan daiteke "Kudeaketa zuzentarau eta neurriak" dokumentuaren helburua eremuko biodibertsitatearen giltzarri diren espezie eta habitatak babesteko eta kontserbazio egoera egokian mantentzeko kudeaketa baldintza orokor batzuk finkatzea dela, baina ez duela jarduketa eremu zehatzak seinatzeko helburua.

Horrez gainera, alegazioan kezka bat agertzen da mota guztietako giza jardueren (nekazaritza eta abeltzaintza, basogintza, azpiegiturak) eta ezartzen diren zuzentarau eta neurrien artean izan daitezkeen interes gatazkengatik. Hori guztia, bere iritzian, jarduera horien gainean izan daitezkeen eraginak balioztatu gabe eta konpentsazioak planteatu gabe. Horri dagokionez, esan daiteke eremuaren kudeaketa "borondatezko akordioak" oinarri izanik planteatzen dela legez eskuratutako erabilera eta eskubideek eraginik jasaten dutenean, eta hala jasotzen da dokumentuko lehenengo kudeaketa neurrian, 1. AC.1en alegia ("Ur bazterreko lurren jabeekiko borondatezko akordioak sustatuko dira..."). Horren aplikazioa, jasotzen diren neurri guztietara hedatzen da. Gainera, alegazioan bertan zentzu onez azaltzen den bezalaxe, Euskal Herriko Natura Babesteko Legeak bermatu egiten du eskuratutako erabilera eta eskubideen errenta murrizketa balioesteko eta konpentsatzeko mekanismoak ezartzea (2., 23. eta 36. artikulua).

Zadorra ibaiaren ertzetan urak gainez egiteagatik dagoen kezka dagokionez, adieraz daiteke ur bazterretako habitaten kudeaketa egokiak, dokumentuan aldeztu denak, berekin ekarri beharko duela ibai bazterretan egiten diren erabileren gaineko arazoak gutxitzea, ur bazterretan higadura arriskuak gutxituko baitira, besteak beste. Edozein kasutan ere, Zadorrako urtegien sistemak sor ditzakeen eraginak (eta bereziki urtegiak husteak sortutakoak) gaingiroki ukitzeaz azaltzen denari dagokionez, alegazioa partez onartzen da eta, alde horretatik, honako neurri hau, "Ibai sistemaren giltza-elementua" rekin loturikoa, jaso beharko da dokumentuan: "Eskumena duen erakundean bultzatuko da urtegiak husteak Zadorra ibai ertzetako eremuetan eta, oro har, KBEren biodibertsitatean izan ditzakeen ondorioak kontuan hartzea eta aztertzea".

Abornikanoko Administrazio Batzarra

Abornikanoko Administrazio Batzarraren alegazioak Baia ibaia/río Baia (ES211006) BGLren kontserbazio zuzentarau eta neurriari buruz dira.

Alegazioan desadostasuna agertzen da "Kudeaketa zuzentarau eta neurriak" dokumentuko 6. orrialdean egiten den adierazpenarekin, zeinak emariaren defizita nekazaritza eta abeltzaintza

erabileretarako ura ateratzearekin lotzen duen. Alegazioen testuan aitortzen da ur ateratze horiek badaudela, baina argudiatzen da ateratze handiena, ondorio gisa dakarrena udan ibaiak ur emari ekologikoa ere ez izatea, azken urte hauetako biztanle gehikuntzarengatik Urkabustaizko eta Zuiako hartzeetan giza kontsumorako egiten den ur ateratzearekin loturik dagoela. Alegazio hau kontuan hartzeari begira, ondoren azaltzen den bezala zuzendu beharko da testua: Baia/río Baia KBEn emari defizita dago, hiriko eta nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerarako ur ateratzearekin loturikoa...”

Gainera, URAK asmotan duen Abornikanoko presa iragazkortzeko proiektua dela eta, administrazio batzarrak haren berririk ez duela eta kezkatuik dagoela adierazten du. Idazkian aukera alternatibo bat azaltzen da, haren iritzian presan esku hartzea saihestuko lukeena. Abornikanoko Administrazio Batzarrak, gainera, bere kezka agertzen du Abornikanoko presatik 30 metrotara dagoen zubi egitura batengatik. Adierazten da 1983ko uholdeen ondorioz egindako obren ondoren, presa horretan adarrak eta zuhaitzak pilatzen direla, eta horrek guztiak hesi artifizial bat sortzen duela urtearen parterik handiengan. Ohar horiei dagokienez, eta haien gaia kontuan izanik, URARI helaraziko zaizkio, jakin dezan eta ondorio egokiak izan ditzan.

Azkenean, administrazio batzarrak bidalitako idazkian azaltzen da prest dagoela kudeaketan laguntzeko eta KBEn garrantziaren zabalkundean eta horri buruzko sentsibilizazioan egokia irizten zaion guztian parte hartzeko.

Iruña Okako Udala

Iruña Okako Udalaren alegazioa Zadorra ibaia/río Zadorra (ES211010) BGLren kontserbazio zuzentarau eta neurriei buruz dira.

Udal honek, lehenengo eta behin, zehaztasun handiagoa eskatzen du KBEn mugaren bi aldeetan aurreikusirik dagoen babes eremu periferikoa izenekorako planteatutako parametro eta/edo afektazioetan eta, beste aldetik, parametro eta/edo afektazio horiek murrizketarik ez ditzatela sortu indarrean dauden udal planeamenduko arau subsidiarioek babes eremu periferikoak eragindako eremuetarako ezartzen dituzten hirigintza parametroetan. Horri buruz, esan behar da babes eremu periferikoak funtsean kautelazko helburu hau duela: esandako esparruan geroan proposatu edo gauzaten diren jardunak, gaur egun indarrean dagoen planeamenduan jasotzen ez direnak, gauzatu, onartu edo planeamenduan jaso baino lehen, aztertzea eta balioes- tea KBeko habitat eta espezieetan izan ditzaketen zuzeneko nahiz zeharkako ondorioen ikus- puntutik. Hortaz, eremu periferikoak ez dio kalterik egiten indarrean dagoen planeamenduari.

Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea – GADEN

GADENek bere alegazio idazkian, lehenengo eta behin, adierazten du kudeaketaren hel- buruek ez dutela, bere iritziz, kuantifika daitezkeen adierazle objektiborik eta, horrengatik, nekez berrazter litekeela etorkizunean, kudeaketa neurriek benetako eraginik baldin badute ibaietako KBEn bizi diren espezieen egoera demografiko eta genetikoan. Ez gaude ados iritzi horre- kin, zeren eta, zenbait gai erabakigarritan, hala nola ongi kontserbatutako habitaten azaleraren bilakaeran eta giltza-espezie iritzitako batzuen populazioaren bilakaeran, parametroak finkatu baitira, gerora espeziearen bilakaera baikorra edo ezkorra den haztatzea eta, ondorioz, horretan oinarriturik abiapuntuko egoera kudeaketa zuzentarau eta neurriak aplikatu eta gero hobetzen den edo ez zehaztea ahalbideratzen dutenak. “Kudeaketa zuzentarau eta neurriak” dokumen- tuan jasotzen diren neurri zehatzen artean, egitez, KBeko espezie garrantzitsuenetako batzuk karakterizatu eta ebaluatzeko azterlanak ere jasotzen dira, gutxi gorabehera bilakaera azalduko dutenak.

Igaraba arruntaren (Lutra lutra) kontserbazio egoerari eta bideragarritasunari dagokienez, alegazio idazkian eskatzen da adieraz dadila zeintzuk diren helburu hori erdiesteko jaso asmo diren jarraipen eta ebaluazio neurriak, eta auzitan jartzen dira espezie horren diagnostikoa eta kontserbazio egoera. Horri buruz, alegatutakoa partez aintzat har daiteke eta, horrela, “Ku- deaketa zuzentarau eta neurriak” dokumentuan ondoko hau sartzea proposatzen da: “Igaraba

arruntaren (Lutra lutra) kontserbazio egoeraren jarraipen eta ebaluaziorako neurriak, funtsean, espeziearen presentzia-absentzia zundaketak eta populazio azterlanak eginez gauzatuko dira, batez ere aleen bana-banako karakterizazio genetikoan eta guneen okupazioan oinarriturik. Azterlan horiek kontuan eduki beharko dituzte lurralde mugakideetan ere dauden zuzentarauak”

ES2110006-Baia ibaia KBEko hegazti faunari buruz eta ES2110008-Ebro ibaia KBEko hontz handiari buruz (Bubo bubo) egiten diren oharrekin loturik, GADENek auzitan jartzen du kontserbazio egoera baikorra denik, 2010ean KBEren eragin eremuan egindako azterlanetan oinarrituz. Horri dagokionez, esandako alegazioa helaraziko zaio Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari, kontuan edukitzeko eta ondorio egokiak izateko, Sail horrek gertaturiko eta aurretik onartutako “Baia ibaiko KBEko informazio ekologikoa eta kontserbazio helburuak” dokumentuan.

Arazoibide berean, orobat Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari helaraziko zaio alegazio idazkia, GADENek bere alegazioan “ES211005-Omecillo-Tumecillo ibaia” KBEen Espejoko igerilekuetako presaren iragazkortasuna zalantzatan jarriz egiten duen balioespena kontuan har dezan, hala badagokio.

Horregatik, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuak proposaturik, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, entzunaldiko izapidean egin diren oharra eta ekarpenak kontuan hartu eta gero, hauxe

ERABAKITZEN DUT:

LEHENENGOA. Behin betiko onarpena ematea “Kudeaketa zuzentarau eta neurriak” dokumentuari, Arabako Lurralde Historikoko ibaietan kontserbazio bereziko eremu (KBE) hauek onik zaintzeko eta bertako espezieen habitaten narriadura eta eraldaketak ekiditeko:

- ES2110006 Baia ibaia/río Baia
- ES2110010 Zadorra ibaia/río Zadorra
- ES2110012 Ihuda ibaia/río Ihuda (Ayuda)
- ES2110005-Omecillo-Tumecillo ibaia/río Omecillo-Tumecillo
- ES2110008 Ebro ibaia/río Ebro

BIGARRENA. “Kudeaketa zuzentarau eta neurriak” dokumentuan jasotzen diren kudeaketa neurriak gauzatzeko ekonomia zuzkidurak, dagozkien aurrekontuetan onartuko diren aurrekontu baliabide erabilgarrien baldintzapean egongo dira, eta edozein kasutan dokumentu horretan jasotzen den zenbatespen ekonomikoa, 92/43/EE Zuzentarauaren 8. artikuluan aipatzen den EBren kofinantzaketarekin loturik beharrezkoa iritzi zaionari begira egiten da.

HIRUGARRENA. Erabaki honen berri ematea eragina jasan duten eta/edo alegazioak aurkeztu dituzten administrazio, antolakunde eta herritarretako bakoitzari.

LAUGARRENA. Erabaki honen berri ematea Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari, jakitun egon dadin, ekainaren 30eko 16/1994 Legeak, Euskal Herriko Natura Babestekoak, 22.5. artikuluan ezarritakoa betetzeko.

BOSGARRENA. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko martxoaren 11

Diputatu nagusia

JAVIER DE ANDRÉS GUERRA

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua

MARTA RUIZ CERRILLO

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria

BELÉN ECHEVERRÍA GOITIA